

## **IRAURGI BERRITZEN**

*2014ko Sustapen Ekonomiko Plana*

### **EKINTZAILETASUNA SUSTATUZ, BEREZIKI GIZARTE-EKONOMIAN ETA IZAERA ESTRATEGIKOA EDO BERRITZAILEA DUTEN JARDUERATAN ENPLEGUAREN SORRERA BULTZATEKO DIRU-LAGUNTZAK.**

#### 1.- XEDEA.

Diru-laguntzen hauen xedea da Iraurgi Lantzen SAK eskualdeko garapen agentziak ekintzailetasuna sustatuz, bereziki gizarte-ekonomian eta izaera estrategikoa edo berritzailea duten jardueratan, enpleguaren sorrera bultzatzea Azpeitia eta Azkoitian.

Laguntza hauek ematerakoan, Iraurgi Lantzen, SAREN azken helburua da enplegua bultzatu eta ekintzaltasuna sustatzea, horretarako hainbat baliabide eskainiz.

#### 2.- DIRU-BALIABIDEAK.

2014ko aurrekontu ekitaldian programa honen xede diren diru-laguntzetara bideratutako diru kopurua 150.000€-koa izango da.

#### 3.- ESKATZAILEAK ETA BALDINTZAK.

Enpresa berriak Jarduera Ekonomikoen Zergan eta Gizarte Segurantzaren dagokion Erregimenean **2014ko urtarrilaren 1etik azaroaren 30era bitartean**, biak barne, eman beharko du hasierako alta.

Edonola ere, enpresa horrek bere kokapena eta bere zerga-egoitza Azpeitian edo Azkoitian izan beharko du gutxienez urte beteko epean.

Edonola ere, enpresa edo jarduera, berria izan beharko du.

2014. urtean zehar (abenduaren 1a baino lehen) enpresa berri bat sortu duen edozein pertsona fisiko, adinez nagusia, izan ahalko da programa honen onuradun.

Enpresa berria sortu duen edo sortuko duen pertsona ekintzaileak honako baldintzak bete beharko ditu:

- Langabezian egotea enpresa eratzerakoan.
- 2011eko urtarrilaren 1a baino lehen Azpeitian edo Azkoitian erroldatua egon izana (hiru urteko antzintasuna), egoera horretan diru-laguntza epealdian mantendu beharko delarik.

- Erroldaren, antzinasunaren edo langabeziaren baldintza bete ezean, laguntzaren xede den enpresa-jardueraren egoera balioetsiko da honek Azkoitiko edo Azpeitiko herriarentzat sortu dezakeen gizarte onura aintzat hartuz.

#### 4.- BAZTERTZEAK.

Laguntza hauetatik kanpo geratuko dira honako egoeretakoren batean sartuta leudekeen enpresak:

- Diruz laguntzeko aurkeztu den enpresa sortu aurreko bederatzi hilabeteetan matrikulatu direnak Jarduera Ekonomikoen Zergan jarduera berean edota antzekoan.
- Diruz laguntzeko aurkeztu den enpresa sortu aurreko bederatzi hilabeteetan Gizarte Segurantzaren autonomoko erregimenean (edo baliokidean) alta emanda egon dena.
- Taberna edo antzeko ostalaritza jarduerak baztertzen ez diren arren, programa honen markoan bereziki aztertuko dira. Eskaerak banan-banan aztertu eta kasuz kasu diru-laguntzarik dagokion aztertuko da eta kopurua erabakiko da.

#### 5.- ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA.

Oinarri hauek argiratutako egunaren biharamunetik aurkeztu ahal izango dira eskariak.

Oro har, eskariak aurkezteko epea hiru hilabetekoa izango da, Jarduera Ekonomikoen Zergan alta emandako egunetik hasita.

Salbuespen moduan, urtarrilaren 1etik oinarri hauek ofizialki argitaratutako egunera bitartean gertatutako altek hiru hilabeteko epea izango dute, argitalpen ofiziala egindako egunaren biharamunetik hasita.

Edonola ere, eskariak aurkezteko epea 2014ko abenduaren 1ean amaituko da.

#### 6.- ESKABIDEAK AURKEZTEA.

Laguntza horiek jaso nahi dituztenek deialdian zehaztutako ereduaren araberako eskabide-eredu ofiziala bete eta aurkeztu beharko dute.

Eskaerak Iraurgi Lantzen, SAren Erregistro Nagusian aurkeztuko dira -Azkoitiko Intsausti Jauregian, Julio Urkijo 3an eta Azpetiko Enparan 1, 3an- astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 13:00ak bitartean, edo, nahi izanez gero, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio

Prozedura Erkidearenak) 38.4. artikuluan aurreikusitako bitartekoetatik edozein erabiliz.

#### 7.- AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

Eskaerari oinarri orokorren 5. artikuluan eskatutakoa betetzen duen dokumentazioa erantsiko zaio.

Oinarri orokorren 5. artikuluan adierazitako dokumentazioa aurkezteaz gain, diru-laguntza programa honetarako, eskatzaileak honako agiriak aurkeztu beharko ditu:

- a) Eskabide-orria, behar bezala beteta eta sinatuta (Eranskina).
- b) Dagokion Enplegurako Zerbitzu Publikoak emandako egiaztagiria, enpresa sortzeko unean langabezian edota enplegua hobetzeko egoeran sartua egotea adieraziko duena (sustatzaile guztiena).
- c) Enpresa-proiektuaren azalpen memoria, enpresa jabeen curriculum eta hala badagokio, bideragarritasun-azterketa.
- d) Diru-laguntza emateko irizpideak kontuan izanik, baliagarria izan daitekeen beste edozein agiri.
- e) Diru-laguntza programa honen onuradun izateko edonolako egoera baztergarritan sartua ez egotea egiaztatuko duen zinpeko aitorpena. (Eranskina).
- f) Jarduera Ekonomikoen Zergan alta emanda eta Gizarte Segurantzari, autonomoko erregimenean (edo baliokidean) azken bederatzi hilabeteetan alta emanda ez dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria. (Bizitza laboralaren ziurtagiria).

Enpresek nahiz interesdunek eskabidea aurkezten dutelarik, oinarri hauek onartzen dituztela esan nahiko du.

Bideragarritasun-azterketarako Iraurgi Lantzen SA garapen agentziak zerbitzu hau doan eskainiko die balizko onuradunei.

#### 8.- BALIOESTEKO IRIZPIDEAK ETA DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKOAK.

Diru-laguntzen zenbatekoak honakoak izango dira:

- 2.500 €-ko diru-laguntza, edozein izaera juridikopean sorturiko enpresa jarduera sortzeagatik, jarduera burutzen duena pertsona fisikoa edo pertsona juridikoa dela ere.
- 5.000 €ko diru-laguntza edozein izaera juridikopean sortzen den enpresa jarduera gizarte ekonomiakoa bada (lan elkartuko kooperatibak, lurraren ustiaketa komunitariorako kooperatibak eta lan-sozietateak).

- Iraurgi Lantzen, SAK izaera estrategikoa edo berritzailea duten jarduerak garatzeko objektu soziala duten enpresa berrien sorrera bultzatzeko laguntza bereziak eman ahal izango ditu, gehienez 10.000 € enpresako. Laguntza hau jasotzeko ez da beharrezkoa izango langabezia izatea.

Laguntza berezi hauen ondorioetarako, izaera estrategikoa edo berritzailea duten enpresak direla ulertuko da beren xede bezala, ikerketa, berrikuntza eta garapen proiektuak gauzatzea dituztenak, sortu ahal dituzten lanpostuen arabera.

Laguntza berezi hauen balioztapen-irizpideak honakoak izango dira:

1. Proiektuaren berrikuntza maila eta enpresa potentziala: 30 puntu gehienez.
2. Aurkeztutako proiektuaren kalitate teknikoa: 20 puntu gehienez.
3. Talde sustatzailearen gaitasuna: 20 puntu gehienez.
4. Egindako inbertsioak: 20 puntu gehienez.
5. Sortutako enplegua: 10 puntu gehienez.

Enpresa berri bat laguntza berezi hauen onuraduna izan dadin, gutxienez 50 puntu eskuratu beharko ditu.

## 9.- BESTE DIRU-LAGUNTZA BATZUEKIN BATERAGARRITASUNA.

Oro har onartzen da diru-laguntzarekin batera eta aldi berean beste Administrazio batzuetatik, partikularretatik eta abarretatik ere diru-laguntzak jasotzeko aukera izatea, bai diru-laguntza bidezko sarrerak izan, bai garatu nahi den proiektua edo jarduera finantzatzeko ezarri diren aportazioak edo kuotak izan.

Beste finantzazio-bide batzuk ere lortu balira, eta oinarri-arau espezifikoek beste erregulazioen bat ezarri ezean, izandako gastuaren %100ean ezartzen da finantzazio-muga, hau da, ezingo da inoiz gertatu gainfinantzaketarik diru-laguntzarekin.

## 10.- ONURADUNAREN BETEBEHARRAK.

Diru-laguntzetarako Lege Orokorraren 14. artikuluan jasoak datozenaz gain, enpresa edo entitate onuradunak (hemendik aurrera onuraduna) honakoak bete beharko ditu:

1) Gutxienez 12 hilabeteko epean jarraitzea enpresak alta emanda hura eratu zenetik Jarduera Ekonomikoen Zergan eta Gizarte Segurantzari, autonomoko (edo baliokideko) erregimenean.

2) Diru-laguntza eman ondoren, zertarako eman den, horretara bideratzea ekonomi jarduera gutxienez urtebetez.

3) Enpresa eratzeko unean sortutako lanpostuen maila mantentzea –horren arabera zehaztu baita diru-laguntzaren zenbatekoa–, eta hala izango ez balitz, jasotako diru-laguntza osoa edo zati bat itzuli beharra, mantendutako lanpostuen kopuruaren arabera.

- Epealdi horretan bazkideen bajak edo sartzeak gertatuko balira, haserako sarreren baldintza sozio-laboral beretan egin beharko dira sarrera berri horiek.

- Betebehar hau betetzen dela egiaztatzeko, Entitate onuradunak Iraurgi Lantzen, SAri bazkideen liburuaren kopia konpultsatua bidali beharko dio, hamabi hilabeteko epealdia amaitu ondoreneko hilabeteko epean.

4) Gizarte-ekonomiako enpresa bat eratzen bada dagokion erregistroan inskribatu zenetik hiru urte betetzen direnean, sustatutako entitatea gizarte ekonomiako enpresa moduan mantendu beharko da.

5) Diru-laguntza ematerakoan kontuan izandako edozein gorabehera –hala objektiboa nola subjektiboa– aldatzen bada, horren berri eman.

6) Dagozkien egiaztatze ekintzen mende jartzea.

#### 11.- INFORMAZIOA.

- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO).
- [www.iraugilantzen.net](http://www.iraugilantzen.net)
- [www.iraugiberritzen.net](http://www.iraugiberritzen.net)
- Azpeiti eta Azkoitiko udaletako web orrietan.

**Iraurgi Berritzen** (Iraurgi Lantzen, S.A.)

Azkoitian, 2014ko maiatzaren 22a